



**Pil**   
**bi ean**

1999ko uztailak 23 / 16. alea



**AUPA  
PLAENTXIKO  
JAIXAK**



*Bizikleta gustatzen bazaizul!*

# **BICIPRECISIÓN IGARTUA**

*Espainia eta Portugalerako inportatzaile eta banatzaile bakarra*

*Iñigo Igartua*



**5000 m<sup>2</sup>, ALMAZEN eta DENDA BERRIA**

**BIZIKLETAK :**

KARRETERAKUAK, MTB, UMEENTZAT, ESTATIKOAK, TRIAL, TANDEM eta  
ZIKLO-KROSSerakoak.

Era guztietako **ERROPAK, OINETAKO** edo **ZAPATILAK**

Era guztietako **KONPONKETA** eta **ARREGLOAK**

**BIZIKLETAK GARBITU** eta **ENGRASE ZERBITZUA**

Zubieta kalea 5-7

Tfnoa. 943 - 76 11 21 / Faxe 76 06 75

Mobila 989 76 11 21

posta kutxa 9

20570 BERGARA

Gipuzkoa

# **GOL S.A. industrial**

## ***TORNILERIA-ESTANPAZIOA***

## ***ETA EXTRUSIOA HOTZEAN***

**Tfnoa. 943752100**

**Telex 38665GOL-E**

**20590 SORALUZE**

# UDA BERO BERA BERO

## AURKIBIDEA

<i>Editoriala</i>	1. orrialdea
<i>Kale inkesta</i>	2. orrialdea
<i>Gutunak</i>	3. orrialdea
<i>Gizartea</i>	4. orrialdea
<i>Berri motzak</i>	6. orrialdea
<i>Sutondoaren epelean</i>	8. orrialdea
<i>Kultura</i>	10. orrialdea
<i>Sukaldaritz</i>	11. orrialdea
<i>Kirola</i>	12. orrialdea
<i>Hormatzulotik begira</i>	13. orrialdea
<i>Ajenda</i>	14. orrialdea
<i>Zirikadak</i>	16. orrialdea

San Juan bezperan zorientasunaren edari magikoarekin batera urtean zehar gertaturiko gauza txarrak uxatu eta indarberrituta ekin diogu udari. Azkenean heldu zaigu momentu preziatua, hainbeste desiro izan duguna, udaren koloreak jantzi, aurpegia irrifarrez margotu eta ilusioz heldu diogu opor garai eroari. Jai giroa da nagusi herriko kaleetan eta plaentxiarren aurpegietan. San Andreseko jaietan motoreak berotzen hasi eta San Martzialak arte izango dugu bai non gozatu. Izan ere eguzkiak, azal beltzaranak, etxafluen zaratak, danbor hotsak, barraken zorabioak, zezenen marruzak, edari konbinatu, zurito eta freskagarrien zaporeak, maiteñoaren keinu, irribarre ala dantzak, gau pasen emozioak... alaitasunez mozkortzen gaituzte. Eta gure Pil pileanek ere alaitasun eta zorientasun honen lagun izan nahi duenez zuen eskutan egon nahi izan du jai zorientsu zorientsuak opatzeko. Bukatzeko txupinazo egunean balkoitik entzungo denaren aurrerapen gisa zera ohiukatuko dugu ..

**GORA PLAENTXI ETA PLAENTXIARRAK!!**

**Argitaratzailea:** Pil Pilean kultur elkarte **Erredakzio kontseilua:** **Gizartea:** Eduardo Pombar, Maite Etxeberria, Egoitz Unamuno eta Sabin Mendizabal. **Kale inkesta:** Amaia Agirre eta Aitziber Gantxegi **Sutondoaren Epelean:** Gurutze eta Elene Alberdi **Hormatzulotik begira:** Maite Etxeberria **Berri motzak:** Egoitz Unamuno **Lehiaketa:** Gurutze **Ipuina:** Jose Ramon **Hizkuntza Arduraduna, diseinua eta maketazioa:** Egoitz Unamuno **Publizitatea:** Elene Alberdi eta Iñaki Alberdi **Tirada** 1800 ale **Inprimategia** Gertu Koop.

“Zezena dator arkupetik sua dario adarretik JEA JEA Santana kaletik...”

## OHARRA

### AURTEN

**ORDENAGAILUAREKIN  
IZANDAKO ARAZO BATZUEK  
DIRELA MEDIO, EZIN IZANGO  
DIZUEGU JAIETAKO GEHIGARRI  
BEREZIRIK ESKENI.**

# Udan gehixau zaintzen dozu gorputza ?



**Beatriz Maiztegi**  
37 urte. Ekonomilaria

Udan ez naiz ne-  
guan baino gaeiago  
zaintzen, agian erro-  
pa gutxiago edo mo-  
txagoa eramaten de-  
nez gustatzen zaida-  
na izaten da kolorea  
edukitzea eta horreta-  
rako mendia nahiago  
dut.

Egia esan, ni ez naiz  
gehiegi zaintzen, baina  
beharbada beroa dela  
eta, gose gutxiago edu-  
kitzen dut. Udan beste  
modu batean jaten dut,  
arinago, baina ez naiz  
zaintzen. Nik uste dut  
neskak gehiago zain-  
tzen direla, naiz eta mu-  
tilak gero eta gehiago  
zaindu.



**Juan Carlos Alonso**  
37 urte. Langilea



**Ana Sebal**  
35 urte. Langilea

Uda etortzen danean,  
orain ez dot ezebe  
eitxen, baina lehen  
bai, kirol gehixau eta  
janarixa ere zaintzen  
neban, baina orain  
eitxen doten gauza  
bakarra depilatzea  
izaten da, hori be ba  
da lan neikua.

Udan eguraldi hobia  
eitxen dabenez, erra-  
zaua da kirola eitxia  
eta gogo gehixau eu-  
kitzen da. Gainera  
hondartzara joateko  
polixaua da argal  
egonda, horretarako  
kirol gehixau ein biha-  
rra dao.



**Jesus Gil**  
34 urte. Teknikaria



**Ane Aristi**  
20 urte. Ikaslea

Uda aldiari kirol gehi-  
xau eitxen dot, bestela  
hondartzara juaten  
zaran lehenengo egu-  
netan bikinixa ipini eta  
... oin eskilarak oinez  
igo eta jeisten ditzut,  
bernetarako egokixak  
dian ariketak eta agua  
itxi.

Ez naiz gehixau  
zaintzen, berdin ber-  
din jarraitzen dot, be-  
ruak ez dosta apetito-  
rik kentzen. Egixa  
esateko, igual likido  
gehixau eraten dot.



**Jabier Garmendia**  
36 urte. Langilea

**ARRANO-TABERNA**  
SORALUZE



*MARTXA eta BORROKA*

*Benito*  
*Anaiak*  
*Altzariak*

*Santa Ana 26 tfnoa: 943753020/41*

# SORALUZETARREN HITZA

Pasa den hilaren 13 an Soraluzetarrok hurrengo lau urteetarako eman dugu hitza. Bost alderditako ordezkariak bildu dira herriaren norabidea erabakitzeko. Hona hemen alderdi bakoitzak izan dituen emaitzen erreflexionamendu pertsonal bat, txikitik hasi eta haundieneraino.

5. EA, galtzaileetariko bat, boto jeitsiera haundia eta kontzejal bat gutxiago. Bi gaietaz hausnarketa egin beharko lukete, lehena EAJ-PNV alderdiarekin joan ez izanak eta bestetik eta baliteke garrantzitsuena, azken momentuetan egin zuten hautagai eta batez ere lakategai aldaketa.

4. PP, lehen aldiz ordezkari izango duen alderdia, orain arte egindako beste hauteskundeetako emaitzak berretziz. Soraluzeko ez den eta bertako arazoak ezagutzen ez dituen ordezkari berria. Kasu honetan aurrekoan ez bezala alderdiari eta ez hautagaiari emandako botua.

3. PSE-EE, galdu duen beste alderdia, kontzejal bat gutxiago. Zihurrenik PP ra joandako botoak.

2. EH, joan zen urteko hauteskundeak eta gero, alkatetza hurbilago zutelakotan zeuden,

botoetan igo arren kontzejal kopuru berdina, EA koak bezala hautagai egokiak ez izatearen arazoa dirudi.

1.EAJ-PNV, irabazlea, botoetan gora eta kontzejal bat gehiago (benetan ezusteko galanta, hautagaiak berak ere ez zuen espero). Ez bakarrik laderdiari emandako botoak, pertsonari emandako botoak ere gehitu ditu. Hala ere jakin mina daukat zer gertatuko litzatekeen orain dela urte batzuk beste alderdi batzuk egin zioten eskaerari baiezkoa eman izan balio; alkatetza lortuko al zukeen EAJ-PNV alderdia ez den beste batean hautagai izango balitz? Auskalo ...

Ondorioa, gauzak berdin jarraitzen dute, pertsona, hautagai eta alderdien gaintetik, Soraluzen ditugun arazoei aurre eta herri hobeago bat egin dezatela eskatzen diegu Soraluzeko Herritarok.

Galipot.

## S O R A L U Z E K O HERRITARROI

Soraluzeko Lizarra-Garazi Taldeak akordioaren edukinak, Soraluzeko herritar eta talde batzuei helarazten ahalegindu gara eta jarraitzeko asmoa daukagu. Uda dela eta, ezingo gara herriko talde eta herritar guztiengana heldu, baina lasai, irailetik aurrera zuek

guztiokin egongo gara. Lizarra-Garazi partehartzen dugun kideok, ilusio handiz ari gara lanean, eta etorkizunean zuekin kontaktzea espero dugu. Laister arte.

Soraluzeko EA, HB, ELA, LAB, Jarrai, Amnistiaren Aldeko Batzordea.

## PRESOAK KALERA !! PRESOAK ETXERA !!

Kanela loretan ilusiorik gabea, horrelakoa da nire bizitza horrelako da bizitza. Aberatsak gero eta aberatsago Eta pobreak zintzo Baina miserian galduta. Aznarrek izorratzen nau Eta Puyol hiltzontzia da. Faxistak, beraien erruz hil zen Txorta, borrokalari leiala Euskal Herriaren alde. Errepresioak ez darama inora. Presoak jipoiak pairatzen. Ekainean Joxean Arluziaga Nere lagunena aita Gartzelatik ateako da; Iraultz txikiena, Hiart politena, Eta Esti nagusiena, borrokalaria Eta Maribel bere maitia. Eusakal Herriaren askatasunaren alde. PRESOAK KALERA !! PRESOAK ETXERA !!

Gabriel Galan.

### AKELARRE TABERNA


BOKATAK, PIZZAK ETA KAZUELITAK

TLFNOA: 943753102

SORALUZE

Argazkiaren honen erabilera librea da.

En la edición de esta publicación colabora



# TXERNOBILEKO UMEAK

Bopucoba, Bennwim, Anna eta Koctr. Ez, ez dugu erabili beste hizkuntzarik edo inprentako akatsen bat izan, horrela idazten da lau neska- mutil hauen izenak euren hizkuntzan. Soralueko lau familiak ekarri dituzte uda hemen pasatzeko. Lau familia hauek Diario Vasco Soralueko kartia irakurri eta gero animatu ziren eta ekainaren 26tik aurrera familia haundituta ikusi dute.

Umea hartzearen arrazoia ez da, jende askok pentsatzen duen bezala, gaisorik daudela, ume hauek defentsa gutxi dutela baizik, eta hango janaria, edaria ... kontaminatuta dagoenez, hona etortzen dira defentsak hartzera eta jan garbia jatera. Kontaminazio hau ez da ematen Txernobilen bakarrik Txernobileko 60 Km karratuko radio batean. Horregatik ume hauek Txernobilekoak edo ingurukoak izan daitezke.

Orokorrean familiak ez du komunikatzeko arazorik, umeek gaztelania ulertzen dute eta ulertzen ez dutenean ingelesez edo mimikaz saiatzen dira. Umeekin gauza pila egiten dute: hondartzara joan, pantanora edo edozein lekutara joan Euskal Herria ezagutzeko eta kirol asko egiten dute.

Umeak oso gustura daude euren udako familiekin eta gizon- emakume hauen seme-alabak ere oso pozik daude beraien lagun berriekin eta primeran konpontzen dira elkarrekin. Noizean behin ume hauek beraien senideekin kontaktuan ipintzen dira telefonoz baina senideek ez dute nahi familiak dirua gastatzerik telefonoan eta nahiago dute kontaktua oso haundia ez izatea.

Benetan harrigarria dena da, ume hauek elkartzen direnean lotsatzen direla eta beraien artean ez dutela berba egiten.

## BOPUCOBA BAUEPUE.



Valeria da, 11 urte ditu eta nahiago du mendia hondartza baino, urak beldurra ematen baitio. Etxean laguntzen du eta orain lo gehiago egiten du baina lehen sei t'erdietan jaikitzen zen. Eta denetik jaten du.



**PASCUAL CHURRUGA S.A.**  
Tornillería estanpada

Errekalde 21  
telef. 943751600 eta 943751604  
Faxa 943 752461 20590 SORALUZE



**JATETKEA**  
**TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

## BENNWIN CEMEUI.

Sergey da eta 13 urte ditu. Denetik jaten du: babak, makarroiak, berduria eta denetik asko. Lo asko egiten du eta hondartzan primeran pasatzen du. Igerilari ona da eta azkenengo bi udak Sopelanan eman ditu, eta bere barruko arropa berak garbitzen du.



## ANNA.



Anak 9 urte ditu Igerilekua eta hondartza oso gustukoak ditu eta hara pozik joaten da. Egunero, bazkaldu ondoren bere platera eta edalontzia garbitzen ditu eta lurra pasatu ere bai.

## KOCTR

10 urte ditu eta kirolari ona da, denetik egiten du: igerian, bizikleta... Bere arreba Valentzian dago bera bezala uda pasatzen eta astero egiten dute berba. Denetik jaten du eta egunero esnatzen denean bere ohea egiten du.



Etorri zirenean beraien poltsan arropa gutxi zekarten baina familia guztiarendako opariekin zetozen. Esan zieten dentistarengana eramateko ahoa gaizki zutelako baina dentistanera eraman dutenean ahoa oso ondo daukatela ikusi dute, hemengo edozein neska-mutil batenak baino hobeto. Pozik daude esperientzia honekin eta kalean esan dietenaren arabera hurrengo udan ume gehiago etorriko direla uste dute baina esatetik egitera ....

Badakizue, hurrengo udan neska edo mutil bat ekarri nahi baduzue beraiekin hitz egin eta esango dizuete zer egin behar den. Benetan txalogarria egiten ari direna, ezta?

Maite Etxeberria, Eduardo Pombar

# SAN ANDRES

ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUAK

TLF: 943751646

RABAL 2 SORALUZE

# ITUR Iturgintza

Iturgintza, gas eta kalefakzio instalazioak

Santa ana 20

Tlfnoa: 943751241

Soraluze

## ERAKUSKETA ETA KAPILAREN INAUGURAZIOA

Ekainean astebetetz abadearen etxeko lokalean egin zen janari, arropa, instrumentu, eta beste gauza askoren erakusketak jende ugari erakarri zuen. Bertan batu ziren diru eta bestelako gauzak erabakita zegoen bezala, ONG bati eman zitzaizkion. Jakinarazi zigutenez, erakusketa hau herririk herri dabil eta abuztuan geldituko bada ere, irailean jarraituko du berriz. Bestalde, eta gaiz adaturaz, Jose Maria Setienek elizako konponketa lanek dirauten bitartean, meza emateko erabiliko den kapila berria inauguratu zuen ekainaren 25-ean. Jende asko joan zen ekitaldira eta meza entzun ostean luntxa izan zen bertaratu ziren guztien gozagarri



## EUSKAL JAIA 99

Joan zen urtean bezala aurten ere ekainean egin XXIX.aldiz Euskal Jaia gure herrian. Eguraldi onak lagunduta, etorri ziren dantza taldeek arazorik gabe herriko kaleetan egin zituzten goiz eta arratsaldeko beren dantza saioak. Eguerdian trikitilariekin batera poteoa egin zuten "helduenek" eta soziedadeetan bazkaldu zuten guztiak. Arratsaldeko dantza saioaren ondoren berriz, pottoka eta zezen txikiekin nahikoa gozatu hartu zuten bertaratu ziren gehienek(zezenak harrapatutakoak ez noski). Egun alai eta zoragarria izan zen berriro ere Euskal Jai Eguna. Antolatzaileen partez eskerrak, dantza talde, soziedade, dantzariak hartu dituzuen eta lagundu duzuen beste guztioi.



## "KONPROMEZU EGUNA"

Euskal Presoak Euskal Herrira Iemapean, Soraluzeako AEK, Eguzki, Mendi Taldea, Euskal Presoak Euskal Herrira, Gestora, Urrats Dantza Taldea, Pil Pilean, LAB, HB, EH, Jarrai, Gaztetxe, EA eta Senideak-ek antolatuta, konzentrazioa, enkartelada, bizikleta martxa, eta dantza eta bertsoz girotutako jaialdi bat egin zen uztailaren 2 eta 3-an. Ekitaldi hauetan berriro ere euskal presoak Euskal Herrira ekarri ditzatela eskatu zen.



ERA GUZTIETAKO INSTALAZIO ETA KONPONETAK, ETXETAKOAK ZEIN INDUSTRIALAK, ATEZAIN AUTOMATIKOAK, BERO AKUMULAGAILUAK GAU TARIFARAKO.

**GANTXEGI**  
ELEKTRIZITATEA

Errekalde, 2 104 p.k.

Telf: 943751959

Soraluze

## "BOYMAR" ARRANDEGLIA



*Jai zoriontsuak,  
opa dizkizue !*

SANTIAANA **Soraluze**  
13 BEHEA  
TLEF: 943751529



## KONTRARGIREN ARGAZKI ERAKUSKETA

Soraluzeko Kontrargi argazkilaritza taldearen eskutik, talde hontako partaide diren Alfonso Cruz, Mikel Valero, Julio Mendikute eta Issaac Zamakola argazkilarien lanak ikusi ahal izan ziren Polikiroldegian Ekainean egin zen erakusketan.



## ARTEDIREN PINTURA ERAKUSKETA

Teresa Azkonak zuzentzen duen Artedi, margo eta esku lan eskolak, Polikiroldegian antolatu zuen margo erakusketan, bertako ikasleek egindako lanak izan ziren ikusgai.

## IRAILAREN 10- ERARTE GELTOKIAK URRUN

Sagar Errekako errekatxoari bidea egiteko lanak direla eta, auzo izango omen da *Kañoneseko irteera* irailaren 10- erarte. Ondorez, trafikoa beste bide batzuetatik bideratu da. Era berean, autobus geltokiak ere tokiz aldatu dira eta azken aldaketa honek eragin dituen dudarik gabe, arazo eta kezka gehien. Lanek sortutako eragozpenak nolakoak diren jakinda ere, geltokiak urrun xamar jarri ote direnaren kontua aipatu da behintzat herritarren artean.

## ARRATE AZKONA JAUZI HIRUKOITZEKO ESPAINIAKO TXAPELDUNA

Aurtengo ekainean Salamankan jokatu den Espainiako Atletismo Txapelketan, soraluzeko atleta gazteak, urrezko domina lortu du kadete mailako jauzi hirukoitzeko proban. Arratek, 12,32 metroko jauzia eginaz bere aurkari guztiak (11) menderatu zituen eta honez gain 12,21 metroko zegoen Espainiar Estatuko errekorra gainditzea lortu zuen. Eta hau guztia gutxi balitz, luzera jauziko proban, 15 partehartzaitatik bigarren gelditu zen, 5,53 metroko jauzi batekin zilarrezko domina eskuratuz. Ikusitakoak ikusita, ez da batere harritzekoa, Arrateren izena jendearen ahotan ibiltzea, bera lortzen hari dena ez baita batere lorpen txikia. ZORIONAK ARRATE ETA JARRAITU AURRERA ERE ORAINARTE BEZAIN GOGOR, ANIMO !!

## IPUIN, BOZETO ETA PINTURA LEHIAKETAK

Udaletxeak antolatuta egin ziren lehiaketa hauetan, ondorengoak suertatu ziren garaile (bakoitza bere taldean): XIV. Ipuin Lehiaketa; Maite Quintanillaren *Kobazulo Miresgarria*, Lide Ugarteren *Ziortza eta Luismiren Gogo Ustela*, Aintzane Expositoren *Ipuin Arraro Hura*, Enara Agirre-*ren Garai Gogorak*, eta Aitor Prietoren *Edozein Ostiral Gau eta koto Dinosaurioak*.



Jaietako Kartel Lehiaketa; Tere Azkonarena, akzeptatua; Tere Goenetxearenak eta



aipamen berezia Argoitz Ariznabarretarenak,

Kaleko VII. Margo lehiaketa; Ainara Osorok A mailan eta Piedad Santamariak B mailan. Zorionak danori eta datorren urtean ere parte hartu!

## INAKI IÑARRA

HARATEGI  
ETA  
URDATEGIA

Kalebarren z/g. tlf: 943751249  
SORALUZE

*Jaietan alegantza,  
soldata eta bakantza.*

**JAJ ETA OPOR  
ZORJONTSUAK.  
ETA ONGI PASA!**

## EGIN BERRI

Ogi egin berria eguneko  
edozein ordutan!

Tlfnoa: 943752543 Santa Ana 2-4

# JOXEAN ETXEAN DA!!

+Joxean Arluziaga, 18 urte kartzelan eman ondoren maitzaren 27an itzuli zen etxera. Ongi etorri bero eta hunkigarria izan zuen, ikurrina, txalo zaparrada eta emozio malkoen artean. Orain etxean da bere familiaren ondoan eta zoriontsu eta umoretsu azaldu zaigu berekin izandako berriketalditxoan.

**-Ze aldaketa somatu duzu herrian urte hauetan?**

Estaziñua, Santana kalea, bariantea, Ezozira bidean orain zuhaitzak daude, futbol zelaia ere ez nuen ezagutzen, San Andresera bidea asfaltuta dago, Atxolin taberna, gaztelupea... lehen ez zeuden,... gauza asko aldatu dira. Jendearen izakera ez da aldatu, baina ambientia aldatu egin da, lehen kuadrila guztiak txikiteuan ibiltzen ziren, orain banaka batzuk besterik ez dira ibiltzen.

**-Orokorrean ze aldaketa eman dira gizartearen?**

Teknologia aldetik aldaketa handiak eman dira, adibidez mikrouhinak, ordenagailuak, konpak disk eta horrelakoak ez zeuden lehen. Kotxeak ere asko aldatu dira orain oso ixilak dira, sartzen zara kotxe batean 160ko

abiadura hartzen duzu eta mugitu ere ez da egiten, lehen berriz, 120 harrapatu eta zaratia besterik ez zen entzuten.

**-Barruan zeneukan ze amets bete dozu eta zein ez?**

Bete dut etxera etortzea eta familiarekin egotea.

Momentu polit baten irten dut, lortzen

ari da beti desio izan dudana.

batasuna.

Gustatuko litzaidake bidaiaren bat egitea, baina horretarako dirua behar da eta ...orain izango zen txollua kartzelatik irten eta 300 miloi hartu hi..!

**-Hainbeste urte eta gero bizitzari berriro aurre egiteko ikastaroren bat egin behar al da?**

Gorputza segiduan egiten da, erritmoa hartzea kostatzen da. 18 urtean arratsaldeko 8etan

ohera sartu eta hurrengo goizeko 8ak arte lo egiten nuen eta orain niri 10etan afaltzea edo 12etan kalean egotea ba kostatu egiten zait azkenerako nekatu egiten naiz. Gorputzak hartu behar du erritmoa pixkanaka.

Orain oso ondo lo egiten dut kartzelan ez duzu oso ondo lo egiten, ez zaudete gelan bakarrik.

Jaten asko disfrutatzen dut

janari egina

'berria jatea zoragarria da.

Barruan oso gaizki jaten da janaria hotza, gustorik gabe...

Barruan oso gaizki jaten da janaria hotza, gustorik gabe...

Barruan oso gaizki jaten da janaria hotza, gustorik gabe...


Barruan oso gaizki jaten da janaria hotza, gustorik gabe...

Barruan oso gaizki jaten da janaria hotza, gustorik gabe...

**Aurrerantzean ze plan daukazu?**

Bakazioak pasatu eta gero lana egin behar, datorrena datorrela lana egin eta bizi...

**-Jendeak dio gupotuta etorri zarela, zer deritzozu...**



**IRATXO**  
  
**GOXOTEGIA**

**EGUNKARIAK**  
**GOIZEAN**  
**GOIZ.**

Etxaburueta, 4      Tlfnoa: 943751320/1464

**MENDIZABAL OKINDEGIA**

Kalebarren, 10 -Tlf: 943752091  
 Baltegieta, 6 -Tlf: 943751399

Ja, ja, ja... hau esaten badizute behin edo birritan bale, baina bai Plaentxian eta bai Getarian agurtu dut jende pila bat eta den denak kontraseña berdina erabiltzea...

Nik zer nahi duzu ba esatea, badakizu ze pasatzen den kartzelan zaude gaizki baina indar pixkat baldin badaukazu ba... nik ez dut erretzen, ez dut edaten, eta kirola egiten nuen zaintzen bazara gero nahiko kurioso ateratzen zara.

**-Laburbildu 18 urte hauek.**

Gogorak izan dira batez ere Maribelendako eta neretako, kartzelan momentu guztiak txarrak dira, baina bisita batek, gutun polit batek, berri pozgarri batek kriston satisfakzioa ematen dizu eta eguna alaitzen dizu. Gose grebetan, txapeuetan eta horrelakuetan gaizki pasatzen da. Batzuk esaten zuten neri grazia egiten zidan jan gabe 3. egunerako gorputza egin egiten dela eta hori gezurra da 3. egunean edo 10. egunean gosea badaukazu... denbora guztian zaude horri bueltak ematen: Guk egin ditugu gose grebak 36 egunekoak 27 egunekoak..., nik horrelakoetan galtzen nituen 20 kilo eta 56 kilotan gelditzen nintzen, honek



badauka eragina gorputzean muskulua galtzen duzu eta gero ez da errekuperatzen lehen bezala.

**-Zein izan da momenturik hunkigarriena?**

Irten behar duzula esaten ditzuten momentua. Boltsak hartu eta irtetzeko momentuan sentitzen dena ezin da hitzekin azaldu hori bizi egin behar da.

**ISILEAN**

**Hiru desio eskatu...**

Preso guztiak kalera irtetzea, independentzia eta independentzia.

**Mania bat**

Neri gustatzen zait kuadroak eta gauzak zuzen ikustea oker ba-

daude segituan ikututxo bat eman eta zuzentzen ditut.

**Pertsona batengan ze ezaugarri baloratzen duzu gehien**  
Egia esatea.

**Eguneko momenturik onena...**  
Etxean bostok elkartzen garen momentua.

**Goatzeko hiru momentu...**  
Jatea, ardo ona edatea eta andrearekin egotea.

**Definitu zure burua hiru hitzetan.**

Egiazalea, normala eta umoretsua.

**Plaentxiarrok...**

Artista batzuk gara.

**Nire esku egongo balitz...**

Barruan dauden lagun guztiak kalean egongo ziren eta independente izango ginen.

**Etxabe harategia**

**Euskal txahalkia - Bildotsa**

Merkatu plaza, 6-7 postuak  
Tlfnoa: 943752375

**EUSKAL OKELA**



**JABIER ALBERDI**  
HARATEGIA

Errebal kalea 24  
tlfnoa: 943751932

# SAN JUAN ETAKO URTEKO GAURIK MAJIKOENA...



aurtengo sogin koadrila

Antzina, Soraluzean ia auzo eta baserri guztietan egiten zen sua San Juan gaua ospatzeko. Urteetan ohitura hau galtzen joan denez Pilpilean taldeak eta Estazio auzoak heldu nahi izan diote ohitura zahar honi eta aurten iaz bezela ekintza ezberdinak antolatu dira suaren inguruan.

Dena Estazioko parkean hasi zen gaueko 22etan sua, dantzaldia, lehiaketak, txokolata...23,00etan, berriz, benetan festa apala eta alaia izan genuen Plaza Berrian. Denetarik entzun, ikusi ala egiteko aukera izan zen, txalaparta, aspaldiko esaera zaharra, bertsoak, irrintziak, soinu, pandero eta alboka joleak, sorgin dantzariak, urteko gauza txarrak idatzi eta sutan erretzea, zorientasunaren edari majikoa...

Pozgarria da horrelako ohiturak mantentzea eta pozgarria da hainbeste jende giroaz sorginduta dantzan gustora eta gozaten ikustea.

## ARRUABARRENA ANAIAK

PINTURAK - MARMOLIZATUAK - GREKOAK  
ZORUEN ETA HORMEN ERREBESTIMENTUA

Tlfnoa: 943751814 / 1815

## Kontulan Aholkularitza, S.L.

Santa Ana, 13 1.ezk.  
Tlfnoa: 943751782

20590 Soraluze

# BARAZKI PUDING -a

Iurdanak txiki-txikitatik ikusi du lanbide hau etxean, baina hasiera batean mahaiak zerbitzen haritzen zen. Denbora pasa den einean afizioak sukaldarako bidea erakutsi dio eta Donostiako "Escuela Superior de Hostelería y Cocina" delakoan lehenengo kurtsoa bete du. Bere espezialitatea "repostería" izan arren hemen bere Barazki Puding-aren errezeta.



## Osagaiak:


- + 1 kg. azenarioa.
- + 1 kg. Espinakak.
- + Azelorea.
- + 4 patata.
- + 8 arraultza.
- + Esnegaina.
- + Gurin eta irin piskat.

## Egiteko Modua:

Hiru ontzi ezberdinetan egosten jarriko ditugu barazkiak; batetik 1 kg azenarioa 2 patatekin, bestetik 1 kg espinakak eta azkenik azelorea 2 patatekin. Egosi ondoren ur guztia kendu eta turmix-etik pasatu. Azenarioak dauden ontziari 3 arraultza eta esnegaina gehitu eta nahastu.

Azalorea dagoen ontziari beste 3 arraultza eta esnegaina gehitu eta nahastu. Espinakak dauden ontziari 2 arraultza eta esnegaina gehitu eta nahastu.

Hiru nahasketak moldean ipini aurretik gurina eta irin piskat jarri izkinetan pegatu ez dadin. Moldea betetzen joan, lehenengo azalorea bota, ondoren azenarioa eta azkenik espinakak. Bukatzeko moldea labean sartu bainu marian, flanak egiten diren moduan, puding-ak gorputza izan arte.



## ALAITZ TABERNA

**EZOZI ETORBIDEN**  
**TFNOA: 943751190**  
**SORALUZE**



## ITXAROPENA

### TABERNA

*Soraluzeko jubilatuek  
 jai zoriontzuek  
 opa dizkizuetel*

Etxaburueta, 4

Telefonoa 943752330

# HARITZ SUDUPE: Arrateko eskubaloiko taldeako "kanoneroa"

Urte dexente dira eskubaloia ikusteko aukera izan genuela Soraluzen. Askok gogoratu dabe domeka eguardi zaratatsu haiek Frontoian, baita ere herriko gazteek nola neurtzen zituzten beren indarrak inguruko talde indartsuen kontra.

Harrezkero herrian ez, baina badira jokalaririk batzuk ari direnak gustuko duten kirola beste taldeetan praktikatzen. Horietako bat, Haritz Sudupe dugu, egun Eibarko Arraten gogotsu ari dena, Gipuzkoa eta Euskadiko selekzioan jokatzeko zer den ere ezagutu duena.

Beraren hastapeneko eta gaur egungo kontuak jakin nahian elkarrizketatu dugu Haritz.

### 1. Nor zaitugu kirolean, Haritz?

Azken denboraldi honetan Arrate taldeko jubeniletan eskubiko lateralean aritu den jokalaria nauzue.

### 2. Nola hasi zinen eskubaloian?

Ikastolan nenbilela, beste askok bezala, futbolekin jokatzeko hasi nintzen eta 13 urte nituenian Eibarrera joan nintzen frogaregitera. Harrezkero, bertan jarraitu dut maila ezberdinetan jokatu eta gero.

### 3. Zeintzuk dira zure postuan jokatzeko behar diren ezaugarriak?

Ba, taldeak antolatzen dituen jokaldiei jaurtiketa indartsuekin amaiera ematea. Horretarako, talde osoak lana egin behar du, momentu bakoitzean jokaldi erabakikorrena aukeratzeko.

### 4. Zer egiten duzue entrenamenduetan?

Asten lau aldiz entrenatzen dugu ordubeteko saioetan. Lehengo entrenamenduan partiduan izandako akatsak komenatzen diltugu batez ere; gero, hariketa arinetara pasatzen gara. Beste bi egunetan, riketa fisikoak lantzen ditugu, horien artean jaurtiketak eta defentsako lana nola bete. Azkenik, ostiralekoak, taktikoak izaten dira, kontutuan hartuz noren kontra jokatu behar dugun lan estrategikoa egiten dugu.

### 5. Zer iruditzen zaizu gogorrena eskubaloian?

Talde jokoan oinarritutako kirola izanik, talde osoaren oreka eta kontzentrazioa mantentzea iruditzen zait zailena.

### 6. Zer eskeintzen dizu eskubaloiak?



Gustura aurkitzen naiz maite dutan kirola praktikatzen. Horrez aparte, hiriak ezagutzeko aukera, Granada eta Bartzelona kasu. Baita ere, beste pertsona batzuk ezagutzeko posibilitatea izan dut.

### 7. Ba al dago beste jokalaririk Soraluzen?

Bai, gainera oso ezaguna, Arraten eta azken denboraldietan ohorezko mailan Barakaldon arituen Víctor Uriarte.

### 8. Soraluzen izandako taldeari buruz zerbait ezagutzen al duzu?

Badakit talde bat egon zela, baina askoz gehiago ez. Politiazango litzateke berriz ere talde bat osatzea, nahiz eta gaur egungo joera gehienak futbolera zuzenduta egon.

**ARANE**  
Kiroldegia

Tel: 943752466

**ARMENDIA**  
JATETXEA

*sukaldaritza tradizionala*

Bataioak, jaunartzeak  
ERA GUZTIETAKO OSPAKIZUNAK

Ezozia Auzoa 11 Tfnua: 75 10 02  
SORALUZE

## LAGUNTZAILEAK

- Justo Bodega.
- Carmelo Mendizabal.
- Artedi Estudio.
- Merce Zapata denda.
- Begoña Txurruka.
- Celia.
- Otaharri.
- Erlei.
- Elkarte Autoak.
- Txurritxu.
- Santa Ana kirolak.
- Mariaje mertzeria.

## JAIOTAKOAK

\* Ez da inor jaio

## OSTERA

Ibaiaren zurrumurrua entzuten dot lehiotik,  
zabalik dago, ura aurrera doa, hauxe egin.  
Noiz arte? zeinek daki. Honezbero heldu da itrasora.

Bakarrik nagoenean bilatzen zaitut, gehienetan ikusi,  
eta galdu nuen irrifarra, aurkitzen dot bihotzetik.

Barrutik begiratzen dotenian, bizitzak dakarren mina  
sentitzen dot, kanpotik ez dot arko espero.

Isiltasunak dakarren lasaitasunean itxoitea nabiko nuke,  
bainan fizikiak sortutako trikimailuen zaratak, zoratzen naute.

Arbolaren zerizpean ezartzen naizenean, hor zaude, eta ban,  
baita hemen.

Esbertzen dotrat eguzkiari, emoten dotan berotasuna,  
esbertzen dotrat jainkoikari, emoten dotan laguntasuna,  
esbertzen dotrat zuri, lerro hauek irakurtzeazatik.

## HILDAKOAK

DOMINGO LASKURAI  
KORTABERRIA

AGUSTIN GABILONDO EGUREN

ISIDORO AMOROS MAIZ

PURIFICACION VEGA SEGUNDO

CRESCENCIA BEISTEGI EPELDE

## ATXOLIN TABERNA

Pintxo bereziak, hotzak eta beroak

Elizburu kalea 1 Ifnoa: 943752131

SORALUZE

## BATZOKI

## TABERNA

Kalebarren 26

Ifnoa: 943751212

SORALUZE

## ANDRAMARIXAK

## Abuztuak 14, Larunbata

- 9:00 Txirrindulari Lasterketa LII. SORALUZE SARIA (SAN ANDRESERA IGOERA), "gazte" mailakoentzat.
- 13:00 Sari banaketa.
- 14:00 Txupinazoa Udaletxeko balkoitik.
- 20:00 Dantza saioa Plaza Zaharrea GAU - BELA musika taldearekin.

## Abuztuak 15, Igandea

- 12:00 BASAURIKO MUSIKA BANDA ri ongi-etorria eta ondoren kontzertua Plaza Zaharrea.
- 19:00 BETI - JAI - ALAI euskal dantza taldearen saioa Plza Zaharrea.
- 23:00 Dantzaldia Plzaz Zaharrea JOXE GARDOKI rekin.

## Abuztuak 16, Astelehena

- 7:30 Ohiko Prozesjioa San Rokeren Baselizara.
- 10:00 San Rokeri harrera, LARREATEGI TALDEA trikitilarien doinu alai
- 11:00 Tortilla lehiaketa.
- 18:00 Dantza solte txapelketa Plaza Zaharrea 14 urtetik beherakoentzat.
- 23:00 Kanp dantzaldia Plaza Zaharrea BETI ALAI musika taldearekin.  
Dantza lehiaketa (pasodoble, tangoak, balsak ...)  
DUO PLAENTXI ren saioa.

## Abuztuak 17, Asteartea

- 10:00 Kalejira LARREATEGI TALDEA trikitilariekin.
- 11:00 Zezenak.
- 17:00 Kalejira ORIA ko txarangarekin.
- 18:00 Zezenak.
- 23:00 TALISMAN taldeak alaituriko dantzaldia Plaza Zaharrea.

ETXEBARRI<sup>®</sup>

Barra kargadore automatikoak  
Tuerka roskaizaleak  
Ranuratzaleak  
Makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Estazioa 7, Posta Kutxatila 62  
Telefonoa (943) 75 18 91  
Faxa 75 18 91

20590 SORALUZE - PLACENCIA  
(Gipuzkoa)



Larreategi  
Jatetxea  
ESOZIA

B<sup>o</sup> Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE/ZE



## IRURE

## Abuztuak 1, Igandea

- 11:00 Meza San Esatebanen basilizan.  
 12:00 Txupinazoa eta txapligu jaurtiketa.  
 GESALAGA nai arrebak trikitilariei ongi etorria.  
 13:00 GEZALAGA anai arrenak trikitilarien kontzertua. SAN MARTZIAL

## SAN MARTZIAL

## Irailak 4, Larunbata

- 20:00 Txupinazoa  
 21:00 Afari herrikoa.  
 23:00 Erromeria BIDE ERTZEAN eta ZABALETA taldeekin.  
 3:00 Txokolatada.

## Irailak 5, Igandea

- 11:00 Meza San Martzialeko basilizan.  
 12:00 LARREATEGI TALDEA trikitilariak.  
 12:30 SALBIDE ANAIK harrijasotzaile eta trontzalarien erakustaldia (Euskadiko txapeldunak)  
 16:00 IV. Mus txapelketa.  
 17:00 Umeentzat jolasak.  
 Umeentzat jolasak eta luntxa bertaratzen direnentzat.

## Abuztuak 2, Astelehena

- 13:00 Meza auzoan hildakoen alde.

## TXURRUKA

## Uztailak 30, Ostirala.

- 23:00 IÑAKI KINTANILLA soinu-joleak alaituriko erromeria.

## Uztailak 31. Larunbata

- 11:00 Txupinazoa eta txapligu jaurtiketa  
 Mesa San Inazioaren basilizan.  
 12:00 NARBAIZA eta EGILEOR bertsolaren eta IÑAKI KINTANILLA soinu-jolearen saioa.  
 14:30 Bazkari herrikoa Txurruka jatetxean.  
 23:00 IÑAKI KINTANILLA soinu-joleak alaituriko erromeria.



## KONTSUMO KOOPERATIBA

JANAKI

ZABIN

JANETZAILAK

TEL: 943751345

## ZIRIKADAK

### XIX KARGA ARINA (?)

Euskaldunok, gure ahulkeriz, urtetik urtera euskeria era guztietan makalduaz eta lordinduaz goiaz. Euskalerriko herririk gehienetan, zaharrak, gaztiak baiño askoz hobetuago dakie euskeraz ; sasotik-sasoira maillaka-maillaka, ez bakarrik gitxituaz, bere aberastasuna eskaztuz doiala esango genduke. Gaztiak ez dakie zaharrak bezin ondo berbak alkarri josten, ezta bihardan moduan erabiltzen be. Gaur, Eibarko gaztiekin be hori bedori gertatzen da -aintzinan be halan izango zala uste- ; zaharrentzat, *ikusi juat* eta *ikusi jetsat*, gauza bi dira. Gazterik gehienak barriz bietara *ikusi jetsat* erabiltzen dabe. Ta, hortik pentsau zeike, irakorle, bati esan ezkeru: "Hire arrebiari ikusi jetsa"; txarrera hartu leikiala. Bakarrik; gaurko gazteri ardura bakua eztau ezerk harritzen.

Antzerakua zan behin eibartar gazte batek Plaentziako Turkuari esan zetsana be, baiña plaentziatarrak heuren erara erantzun zetsan. Hara zer pasau zan:

Plaentziatik Eibarrera eguneroko osteria eiten daben Turkua errekadistari jaso jakona da. Goizian ba ei zoian betiko moduan Eibarreruntz eta Maltza inguruan Eibarko gazte batek, oin *auto-stop* esaten jakon erara, gelditzeko señaia ein zetsan, esanaz:

-Turkua, Eibarrera eruangostazu?

Eta, Turkuak, atzeko hots barik erantzun ei zetsan:

-Bai, botaik gaiñera.

Turkuak, gelditu barik aurrera jarraitu eban, eibartar gaztia kamiño baztarrian agua bete agiñekin lagata. (*Juan San Martin-en ZIRIKADAK liburutik hartua*)

*Hau txistiau entenditzen ez dabenak ez daki euskeraz edo ez dau maite edo ez daki zer maite daben, hala ez?.Urte askuan jarraitu deiela txiste izaten ! (E.U.)*



Antonio Plazaola "Turkua"

**JOSETXO** *Ardangela*

PINTXO ETA OTARTEKOETAN  
ESPEZIALHATEA.


Atxuri,9      SORALUZE      Tlf: 943751571

**LAUDIN**  
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

**LAUDIN, S.A.L.**

Industrialdea, z/g  
138 Postakutxa  
tf: 943752150  
Faxa: 943752118  
**SORALUZE**

# Gu ere Festara goaz



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

SU TA GAR  
1987-89

B'IDE ERTZEAN



GAZTELUPEKO  
**G**  
HOTSAK



Ai putzuak beteak ez baleude apoz  
Nork emango lioke bizitza hori poz  
Penak uxatzen ditut eskusoinua joz  
Nahiago baitut bizi ahuspez baino hauspoz !

*Denda berria*



**Gotzon Agirrezabal**

Tel/Faxa: 943 76 72 52

**ORDUTEGIA**

astelehenetik zapatara:

10:00-13:00



eta 16:00-20:00.

**T**  
textil  
agirrezabal  
**A**

AIT-ITV eta autobus  
geltokitik 100 metrora

- Alfonbrak eta mocketak (fabrikatik zuzenean)
- Hondartzarako toailak (belgiarrak)

- Ehunak eta oihalak
- Tapizeriak
- Kortinak
- Nordikoak
- Era guztietako etxerako gaiak



**Amillaga industrialdea, 5 · BERGARA · Renault-en ondoan**

**ONDO PASAU  
JAIXETAN!!**